

6. BEZERO KANALAK

6.1. Bezeroarekin harremana:

Remindoor-en bezeroekin komunikazioa ona eta hurbila izango da. Arreta-zerbitzuaren bidez bezeroei laguntza pertsonalizatua eskainiko zaie, eta posta elektronikoaren bidez informazioa eta jakinarazpenak bidaliko ditugu. Gainera, sare sozialen bidez bereziki TikTok eta Instagram, lehenik, Tik tok-en algoritmoarekin errez iristen gara jendeari eta ezagunago egiten gara eta Instagram-en erreztasuna ematen dio jendeari gure perfilera sartzeko eta produktuen gure post eta argazkiak ikustea, baita ere azken berriak jakitea.

6.2. Bidea:

- Bezeroarentzako arreta-zerbitzua

Laguntza eta kontsultak kudeatzeko balioko du, bezeroari esperientzia pertsonalizatua emanaz.

- Posta elektronikoa:

Informazioa bidaltzeko eta harreman pertsonalizatua mantentzeko erabiliko dugu.

- Sare sozialak:

Marka sustatzeko, erabiltzaileekin elkarreraginean aritzeko eta eduki interesgarria partekatzeko balioko dute.

6.3. Erosketa kanala:

Bezeroek Remindoor gure webgunearen bidez erosten dute, erosketa prozesu erraza eta intuitiboa eskainiz. Halaber, mugikorretik erosteko aukera ere badago, webgune moldagarria dela eta.

6.4 Mailegua

Laboral Kutxako langile batekin kontaktuan jarritz, beharko dugun maileguaren informazioa lortu dugu. Prezioak bidaliz eta hurak erantzun bat emanaz zenbat beharko genukeen esanez.